

JESUS ETA ZEBEDEOTARRAK

1

Santiago ta Joan anaiak
ziran Zebedeotarrak,
Jesusen alde gazterik dagoz
prest emoteko indarrak.
Behin euren amak Jesus Jaunari
haren eskatu-beharrak,
ustez ez hain gauza txarrak.
Zerbaiten eske baetorrela
igarri eutson Jesus azkarrak,
ondo aztertuz ama-semeen
bihoz-hondoko baztarrak.

3

“Entzun, lagunok, gauza al zaree
hartzeko nire kalitza?
Erreinuaren alde emoteko
Neugaz batera bizitza?
-Bai, Maixu ona, gauza gara ta
emoten deusugu hitza,
hartu gaur gure eskeintza:
Guk ez zaitugu inoiz itziko,
nahizta jasan martiritza;
zer zoriona gurea, Jesus,
hola izango balitza!

5

“Ikasi ondo nor dan Niretzat
Erreinuan haundiena:
inoren morroi jartzen dana ta
erbitzari dagoena.
Azkenengoa lehenen dago ta
lehenengoa da azkena,
hauxe da nire ordena.
Hona hemen Ni zuen Nagusi
eta maixu dot izena;
neure bizia emoteraino
besteen morroi naizena”.

2

“Esaizu, ama, zer nahi dozu Nik
zuri zerbait emotea?
Eskuzabalez emon deustazu
seme gazte bikotea”
-”Hauxe da, Jesus, nire eskaria,
amaren borondatea:
Emon semeoi partea,
zure erreinuan zure eskuman
Zurekin bat egotea,
bestea zure ezker aldean
bigarrena izatea”.

4

“Erreinuaren alde bizia
emongo dozue zinez,
azkenaraino zintzo jokatu”,
dinotsuet gaur saminez.
Hau edo hori nori emongo
Nik oraindino jakin ez,
zuek ekin ahaleginez.
Azkenaldian Aitak deusuen
maitasun finaren finez,
zoriona ta bizi betea
izango dozue gainez”.

6

Jesus Maixua, gaur jaso dogu
erakutsi deuskuzuna,
baina gatx jaku gaur emotea
behar dogun erantzuna.
Ondo dakizu Zeu zaitugula
maite gaituan Laguna,
bizia emon deuskuna.
Egizu begiz ikus daigula
orain fedez dakusguna,
Zeuk dakizu noiz, argi bekigu
Zeu ikusteko Eguna.